


Gaztelu miresgarria



Gaur larunbata da eta gure lagunak kalean daude. Hitz egiten ari dira: -Zer egingo dugu gaur? -galdetzen du Enekok.

-Ez dakit -dio Gorkak.

-Badakit! Goazen mendira! -dio Janirek

Baina Gontzali ez zaio gustatzen:

-Uf! Oso urrun dago, ezta?

-Ba! Zu oso alferra zara. Goazen mendira! -dio Izaskunek.

Bidean, Gontzal oso nekatuta dago eta lurrean eseri da. Eneko eta Izaskun mazustak jaten ari dira, Gorka eta Janire, astiro-astiro, gaztelu batera heldu dira. Gontzal eta Eneko oihukatzen hasi dira:

-Janireee, Gorkaaa! Non zaudete?





-Hemeen gaudeee! -erantzuten dute.

Kontuz! Hor mamu bat dago! -esaten die Izaskunek.

-Hori ez da egia. Goazen barrura jolastera! -dio Gontzalek.

Barrura doaz eta orduan Gontzal eskaileretatik igo da eta mamu bat ikusi du.

-Kontuz mamua dator! Jaitsi hortik! -dio Gontzalek.

Korrika jaitsi dira eta jausi egin dira eskaileretatik


-Ai! Ai! Ipurdiko mina dut -dio Gontzalek.

-Eta nik besoko mina dut – dio diolzaskunek

-Uf! Lur jota nago -dio Enekok.

Orduan, Gorka eta Janire agertu dira atean. Barrez daude:

-Ha, ha, ha! Ez dago mamurik. Gu gara, gu gara. Ha, ha, ha!



Gaztelu miresgarria

Eman erantzuna galdera hauei:

1.- Zein egun da gaur?

2.- Non daude gure lagunak?

3.- Zertan ari dira gure lagunak?

4.- Gontzali mendia gustatzen zaio?

5.- Nora doaz lagunak?

6.- Nola dago Gontzal?

7.- Non eseri da Gontzal?

8.- Zertan ari dira Izaskun eta Eneko?

9.- Nora heldu dira Gorka eta Janire?

10.-Zertan hasi dira Gontzal eta Eneko?

11.-Nondik igo da Gontzal?

12.-Zer ikusi du Gontzalek eskaileretan?

13.-Nola jaitsi dira eskaileretatik lagunak?

14.-Zer du Gontzalek?

15.-Nongo mina du Izaskunek?

16.- Nola dago Eneko?

17.-Nortzu dira mamuak?

Gaztelu miresgarria (Hiztegia)

Ipurdia	Eztula
Tripa	Mina
Zangoa	Sukarra
Hagina	Kontsulta
Belauna	Ospitalea
Bizkarra	Medikua
Ukondoa	Sendagilea
Mihia	Erizaina
Bularra	Gaixoa
Eztarria	Domina
Orkatila	Laster
Hatzamarra	Jaitsi
Xarabea	Sendatu
Termometroa	Gaixorik
.....

Ama zureak

Ama zureak niri
bidean pasa ta
ez dit agurrik
egin maitea
albora tira ta.

Ama zureak niri
agur ez egiteko
zer palazio
dauka maitea
Zuri emateko.

